



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2009-09-25**

VIIURTEA 1.985. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Bitaka enpresako kideak Mugikortasun Iraunkorraren Plana aurkezten. R. CALVO

HERRIKO BIZI-KALITATEA HOBETU AHAL IZATEKO HAINBAT PROPOSAMEN

IBARRA Udalak eskatuta, Mugikortasun Iraunkorraren Plana egin du Bitaka enpresak; proposamenak abiarazi ala ez aztertuko dute orain 6

Zaldia eta natura maite duen ororentzat, Zaldi Raid lasterketa

BEDAIO Etzi izango da proba, 09:00etan hasita; 15 kilometroko bidean bi itzuli egingo dituzte s

Iruran eta Aldaban jai giroa izango da nagusi asteburuan

JAIK Gaur arratsaldean botako dute suziria Iruran, eta bihar iluntzean, berriz, Aldaban 4

JON GONZALEZ
SASKIBALOI ENTRENATZAILEA

«Arinago jokatu nahi dugu denboraldi honetan»

TOLOSA Datorren astean du lehen partida Bide Bide Ibiza saskibaloi taldeak 2

Voith-Gorostidi
eremuko
33 etxebizitza
zozketatuko
dituzte

TOLOSA Esleitu gabe geratu dira etxebizitza batzuk; zozketa azaroaren 18an egingo dute 2


TEUSA



teusa@teusa.com

www.teusa.com

**FATXADA ETA ESTALKIEN KONPONKETA
ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK**

Tel.: 943 401 340

K **Kirol jarduera****Bihar, larunbata**
Areto futbol

■ Usabalgo goiko kantxan, 16:00etan, Lehenengo mailako, probintzialekoen partida izango da. Tolargi Pinturas Gorkaren aurka lehiatuko da.

■ Nazionalen lehendabiziko mailakoen partida bat izango da Usabalgo lehendabiziko kantxan.

18:00etan hasiko da Laskorain eta Bellota Legazkiren artekoa.

Saskibaloia

■ Kadete mutilen partida izango da Usabal kiroldegiko goiko kantxan 12:00etan. Tovar eta Easo Haiza taldeak izango dira aurrez aurre.

■ Usabalko beheko kantxan lehiatuko dira junior mutilak. 16:00etan hasiko da TAKE Orbela eta Krafft ATCO SN SN-ren artekoa.

Futbola

■ Berazubi futbol zelaian, 16:30ean, Tolosa CF eta Ordizia-ren artekoa jokatu da.

■ Usabalgo futbol zelaian, 09:30ean, infantilak: Tolosa CF-Hernani.

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, neska kadeteak futbol zortzian: Tolosa CF-Intxaurrondo.

■ Usabalgo futbol zelaian, 12:30ean, futbol 11n: Tolosa CF-Ostadar.

■ Usabalgo futbol zelaian, 15:30ean, lurraldeko lehendabiziko mailan: Amaro-Intxurre.

■ Usabalgo futbol zelaian, 17:00etan, emakume seniorrak: Tolosa CF-Beasain.

Etzi, igandea**Futbola**

■ Usabal kiroldegiko futbol zelaian, 10:00etan, alebinak: Tolosa CF-Añorga.

Zuzenketa. Atzo, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza egunkarian komertzio mahaia antolatutako zuzeneko jolas tresnen tailerra bihar izango dela azaltzen zuen. Baina, datorren larunbatean izango da, urriaren 3an.

«Azkarrago jokatzeko asmoa daukagu denboraldi honetan»**JON GONZALEZ** Bide Bide Ibizako entrenatzailea

Saskibaloia » Datorren astean jokatu da lehendabiziko jardunaldia Bide Bide Ibizak; Gonzalez izango dute gidari.



I. TERRADILLOS

ESTI EZEIZA

Aste bat, eta egun bat besterik ez zaio falta Bide Bide Ibiza saskibaloitaldeari denboraldia hasteko. Nazional mailan jokatzeko dute hauek, eta egun gutxi barru ikusi ahal izango dira kantxan. Aurten, aldaketa ugari dituzte Tolosaldekoek, tartean entrenatzailea. Orain, Jon Gonzalez izango baitute gidari.

Lehendabiziko partida, urriaren 3an. Nola ikusten duzu?

Zornotzan jokatu dugu. Hasiera zaila izango da, etxetik kanpo eta talde gogor baten aurka izango baita. Baina, ahal duguna egingo dugu.

Entrenatzen ez, baina talde honetan berria zara. Aldaketa handia al da?

Gazteekin aritu naiz orain arte, eta hauei, dena erakutsi beharra zegoen. Orain berriz, suposatzen da esperientzia badutela, eta ez dagoela dena azaldu beharrik. Hauekin taktikoagoak dira entrenamenduak.

Hasteko gogoz al zaude?

Bai, gogo handiarekin. Jolasteari utzi nion duela urte batzuk eta entrenatzaile lanetan hasi nintzen. Gustuko dut entrenatzea.

Beterano batzuk joan dira, eta talde gaztea da oraingoa?

Bai, batzuk utzi dute, eta oro har, talde gaztea da. 18 urteko lau jokalaridau, eta hauek harrobitik datorrenak dira. Zaharren taldea beti-

danik ezagutu dute, eta orain berri iritsi zaie hor egoteko garaia.

Zeintzuk dira taldearen ezaugarriak?

Besteekin alderatuz, talde txikia da alturaz. Hori dela eta, daukagun azkartasunaz baliatu beharra daukagu. Fisikoa falta zaigu agian, baina izugarriko gogoa daukagu, eta batak bestea konpentsatzen du.

Aurreko jokatzeko moduarekin alderatuz, aldaketarik egingo al duzu?

Bai, joko aldetik desberdintasunak egongo dira. Azkarrago jokatzeko asmoa daukagu aurten. Hala ere, aurreko entrenatzaileak urte asko egin ditu lan horretan, eta zaila izango da egun batetik bestera, taldearen jokatzeko modua aldatzea. Denbora aurrera joan ahala ikusiko dugu zer gertatzen den.

Joan den denboraldian, taldearen hasierako helburua maila mantentzea zen. Oraingoa?

Oraingoa ere bai. Maila berean mantentzea lortu behar dugu. Bizkaia aldean talde oso onak daude, eta zaila da hauei aurka egitea.

33 etxebizitza tasatu berriro zozketatuko dira

Ekonomia » Voith-Gorostidi eremuko bizitza batzuk esleitu gabe geratu dira eta hauen zozketa azaroaren 18an egingo da.

ERREDAKZIOA

Voith-Gorostidi eremuko 33 etxebizitza tasatu berriro zozketatuko dira azaroaren 18an. Bertan parte hartu nahi dutenek eskaerak aurkezteko, datorren asteazkenetik urriaren 30era arte dute aukera.

Hiru logelako 16 etxebizitza, bi gelako 14, gela bateko bi eta etxebizitza egokitu bat daude esleitzeko oraindik. Hori dela eta, Udalak prozedura berri bat onartu du etxebizitza horien esleipena egiteko. Hala, zozketan parte hartu ahal izango dute Tolosan bizitzen urte kopuru jakin bat duten eta erroldatu berriek.

Lehen zozketan parte hartu ahal izango dute ordenantzetan jasotako baldintzak betetzen dituzten tolosarrek. Lehen taldea osatu-

ko dute baldintza hauetako bat gutxienez betetzen dutenek: Tolosan izatea ohiko bizilekua eta bertan erroldatuta egotea azken bost urteetatik hirutan gutxienez; Tolosan lan egitea azken bost urteetatik hirutan edo hamabost urtez Tolosan erroldatuta bizi izana.

Udalaren asmoa da herrian bizi bai baina eskatutako urte kopurua iristen ez direnen aldetik dagoen eskaerari ere aurre egitea. Horrela, bigarren taldea osatuko dute, Gobernu Batzarrak onartutako prozedura berriaren arabera, aurtengo irailaren 14a baino lehen Tolosa bizileku zutela egiaztatzen dutenek.

Denek bete beharrekoak

Eskatzaile guztiak bi baldintza bete behar dute. Alde batetik, egiaztatu behar dute ez dutela etxebizitzarik izan 2009ko irailaren 14aren aurreko bi urteetan; eta bestetik, bizikidetzaren unitateak 12.000 eta 43.000 euro bitarteko diru-sarrera izan behar zituen 2008ko ekitaldian.

Errioxatik Zerkausira, piper erreak saltzera

Ekonomia » Larunbat honetatik aurrera asteroko merkatuan erosi ahal izango dira Antton Arronizen piperrak.

ERREDAKZIOA

Inguruko jende askok ohitura handia du Errioxa aldera joan eta bertatik piperrak erretzeko. Hori dela eta, Udalekoek piperrak

salmenta hori Tolosara ekartzea erabaki dute. Zerkausiko merkaturaren indartu asmoz egiten ari diren ekintza ezberdinen artean kokatzen da hau ere. Hala, Antton Arroniz etorriko da Zerkausiko merkatura piperrak erretza saltzera.

Bihar hasi eta 2 hilabetez, larunbatero, Zerkausiko merkaturaren salmentzaile berri honek ondorengo barriateak ekarriko ditu: Lodosako pikiloa, Mendabiako pikoa, Piper nairarra eta Piper morroa.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719
WWW.FUNERARIASVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Euskal presoen eskubideen alde elkarretaratzeak azken ostiralean

Politika » Tolosaldeko eta Leitzaldeko hainbat herritan elkarretaratzeak egingo dira gaur, 19:30etik aurrera.

ASIER IMAZ

Euskal presoen eskubideen aldeko azken ostiraleko bilkurak egingo dira gaur hainbat herritan.

Amnistia Aldeko Mugimendua jakinarazi duenez, bilkurretan azken hilabeteetako gertaeren balantzea plazaratuko dute: «Tolosaldean gertaera larriak gertatu dira: Remi Ayestaranen heriotza, Joxi eta Joxeanen hilobien aurkako erasoak, Maite Aranalderen harreran gertatua...».

Lizartzako ongietorria

Koldo Alaña euskal presoak igandean askatu zuten, 12 urtez espetxean egon ondoren. Lehen harrera Deustun egin zioten, baina sendia eta biziziekua Lizartzan dituenaz, asteartean bertan egin zioten ongietorria.

Tolosan aipamen berezia

Ohi bezala Tolosan 19:30ean elkartuko dira Triangulo plazan. Oraingo honetan ordea, Iñigo Otazuaren egoera gogoratu eta salatuko dute. Tolosarekin lotura duen euskal presoak espetxean 15 urte bete berri ditu.

Asteasun ordu aldaketa

Asteasunik jakinarazi dutenez «gaurtik aurrera 20:00etan egingo dira azken ostiraleko elkarretaratzeak herriko plazan. Ikusirik uda honetan inoiz baino jazarpen handiagoa izan duela gai honek, herritarguztiak gonbidatzen eta animatzen ditugu hitzordu honetara gerturatu daitezten».

Ibarran Xebas eta Josetxo

Joxi eta Joxeanekin gertatu zen bezala, Ibarran Josetxo Jauregi eta Xebas Goikoetxearen hilobien aurkako erasoak salatuko dituzte, besteak beste. Izan ere, «iragan astean ezezagunek bi euskal gudarien hilobietan aurkitzen ziren ikurrinak puskatu eta eraman egin zituzten. Ez da hau gertatzen den



Lizartzako kaleetan euskal presoek argazkiak eta Koldo Alañaren ongietorria. HITZA

lehen aldia, ikurrinak jarri berriak baitziren». Eraso hauek salatzeaz gain, «beste herritan bezala elkarretaratzeetan euskal preso politikoek eskubideak defendatuko ditugu».

» ELKARRETARATZEAK

Irailak 25, gaur

- Aduna. 20:00etan.
- Alegia. 19:30ean.
- Amezketa. 19:30ean.
- Anoeta. 19:30ean.
- Asteasu. 20:00etan.
- Ibarra. 19:30ean.
- Ikaztegieta. 20:30ean.
- Leitza. 20:00etan.
- Lizartza. 20:00etan.
- Orendain. 20:00etan.
- Tolosa. 19:30ean.
- Villabona. 20:00etan.
- Zizurkil. 20:00etan.



Ibarrako hilerrian, Joxetxo Jauregiaren hilobia ikurrina zatiekina. A. IMAZ

Leitza ardatz hartuta Kaskagorren Pentatloia

A. IMAZ

Aurrera KEk antolatuta Kaskagorren Pentatloia antolatu dute biharko. Aurtengoa XX. edizioa izango da eta antolatzaileen esanetan, «gero eta jende gehiagok» hartzen du parte Kaskagorren Pentatloian. Azken urteetan, 110 lagun inguru elkartu ohi izan dira bertan.

Pentatloia: «bost kirol»

Bost «kiroletan» lehena 15:00etan jarriko dute martxan: «Donostia-ko Ondarretan igeri egingo dugu».

Ondoren bizikletak hartu eta Ibarrrara etorriko dira. San Josen indarrak berrituko dituzte, ogitartekoa eta txokolaterearen laguntzaz. Amaiztean bizikletak hartu eta sabela betearekin maldan gora hasi-ko dira Leitza iritsi nahian.

Garai bateko Erreka sagardotegiaren parean, afaria egingo dute, lasterka herrira iritsi aurretik. Azken froga parranda edo gaupasa izanen da. «Lehen Uitziko jaietara joaten ginen baina orain batzuk herrian bertan gelditzen dira. Kanpotik etortzen direnentzat berriz



110 lagun inguru elkartu ziren Kaskagorren Pentatloian. HITZA

eskolako gimnasioan lo egiteko aukera eskaintzen diegu. Dena lagun giroan» egingen dutela aipatu dute ekimenaren bultzatzaileek. Parte hartu nahi duenak Aurrera-ko kideren batekin hitz egitea nahikoa izango du.

2009ko USATEGIEN ENKANTEA BIRIGARRO ETA USOA Areso (Nafarroa)
Tel.: 948 510 327 - 608 928 626
Donostiatik 20 minututara
Paradetaraino sarbidea kobtez
Enkantea Udaletxeko Batzar Aretxean burutuko da.

1go enkantea: irailaren 19an	Larunbata 19:00
2. enkantea: irailaren 26an	Larunbata 19:00

Hernaldeko Udala
IRAGARKIA

Hernaldeko Udala udaletxeko Taberna-Jatebtxea hustiatzeko lizitazioa egitera doa, 5 urterako, beste 5 urte luzatu ahal izango delarik, aurrez urte beteko probaldia izango delarik. Proposamenak Udaletxean aurkeztu beharko dira, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita 13 egun naturaleko epean.

Argibide gehiago Udaletxean, Bulego Orokorrrak (telefonoa 943 65 44 94), e-maila (hernalde@udal.gipuzkoa.net), Hernalden, 2009ko irailaren 22an. ALKATE-LEHENDAKARIA

AMETZ ESTANKOA

Tabakoa
Prensa
Goxokiak

M. Goi Angeru enparantza, 2
20271 IRURA
Tel.: 943 69 96 51

Irurako Ikastola

Jai zoriontsuak pasa!

Zilar kalea, 4 eta San Migel plaza, 5 • IRURA • Tel.: 943 69 43 74

Udazkeneko lehen jaiei hasiera emango diete gaur

San Miguel Jaiak » Iruran gaur eta Aldaban bihar emango diete hasiera festei; Iruran, ohi bezala, bi asteburutan izango dira.

ERREDAKZIOA

Udazkena hasi eta berehala, festei dagokionez, ohiko hitzordua dira sanmielak. Iruran gaur izango da txupinazoa eta bihar Tolosako Aldaba auzoan. Herensugearen etorrerarekin hasiko dira festak: Iruran eta txupinazoa Bixi Larrinagak botako du, bera baita aurtengo festetako omendua. Omenaldia hilaren 29an, meza nagusiaren ondoren egingo diote.

Asteburu honi begiratuz gero, besteak beste, bihar gaueko kontzertuan Bongo Botrako taldearen runba eta Betagarri taldea izango dira. Aurretik, sagardo dastaketan berritasun bat izango da: tortilla erraldoia prestatuko dute. Bestalde, etzi eguerdian xare eta pilota partida interesgarriak izango dira trinketean. Joxi Lopetegi herritarrekin batera Iparraldeko pilotari ezagunek jokatuko dute.

Herri afaria hilaren 28an izango da. Txartelak salgai daude Ogi Berriin, Zaharren Biltokian eta Trinteketan, eta gaur da azken eguna.

Sanmieletan arrakasta handia duen ekitaldia Play Back emanaldia da. Aurtengoan 25 urte betetzen dira eta horregatik Udaletik eskatu dute urte horietan guztietan parte hartu dutenek oraingoan ere animatzea. Eguraldi ona egingen badu plazan izango da ekitaldia.

Beste ekitaldi berezia argazki zaharren erakusketan izango da. 1970. urtea baino lehenagoko Irurako sendien argazkiak erakutsiko dira plazako ikastolako areto nagusian. Hilaren 26an, 27an, 28an eta 29an, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, izango dira ikusgai. Guztira 73 argazki batu dituzte, 58 familietakoak. Eki-mena bultzatu dutenek Bixi Larrinagari eta Karmen Ameztioiri bereziki eskerrak ematen dizkiete, argazkietan azaltzen direnak zein diren zehazten lagundu dutelako.

Aldaban, jaietarako prest

Aldabako jaietan bihar egingo den tortilla lehiaketan bakoitzak bere tresneria eraman behar du eta jantziak antolakuntzak jarriko ditu. Zagiardoari dagokionez, eserlekua eta edaria, ardoa eta sagardoa, antolakuntzak jarriko du. Gainerakoa bakoitzaren esku izango da. Azkenik, etziko Txirindulari Igoera Herrikoian izena emateko aukera kantilean 11:30ean izango da.

» EGITARAUAK

IRURA

IRAILAK 25, GAUR

■ **19:00.** Jaien hasiera buruhandi eta erraldioen kalejira, BTK perkusio taldearen eta gaiteroen laguntza.
■ **21:00.** Barrikotea.
■ **24:00.** Dantzaldia Joselu Anaik taldearekin.

IRAILAK 26, BIHAR

■ **09:00.** Gazte Festaren irteera.
■ **11:00.** Marrakzi lehiaketa.
■ **12:00.** Xare eta pala partidak trinketean.
■ **13:30.** Mutilen soka dantza.
■ **14:00.** Haurren bazkaria plazan.
■ **17:30.** Atxikistan haurrentzako ikuskizuna Loatzo plazan.
■ **18:00.** Kalejira Xare elkartetik Bonberenea txarangarekin.
■ **19:00.** Nesken soka dantza plazan.
■ **19:30.** Sagardo dastaketa plazan.
■ **21:00.** Gazte-festakoen afaria Zaharren Biltokian.
■ **24:00.** Bongo Botrako eta Betagarri taldeen kontzertua plazan.

IRAILAK 27, ETZI

■ **12:00.** Gorritiren abereak.
■ **12:30.** Xare eta pilota partidak.
■ **18:00.** Herri kirolak, plazan edo frontoian. Harrijasotzailea: Aimar Irigoien. Aizkolariak: Mugerza eta Arrospide, Otaño eta Mujikaren auzoa.
■ **19:30.** Bertso-saioa plazan. Sebastian Lizaso, Aitor Mendiluze,

Jon Martin eta Uxue Alberdi. Aurkezlea: Unai Elizasu.

IRAILAK 28, ASTELEHENA

■ **18:00.** Loatzo Musika Eskolako ikasleen emanaldia.
■ **21:00.** Herri afaria Landa aita semeek girotuta plazan.

IRAILAK 29, ASTEARTEA

■ **09:00.** Goiz-eresia txistulariekin.
■ **11:00.** Meza nagusia. Ondoren Herriko dantzari txikien saioa eta hamaiketako herrikoia.
■ **13:30.** Apar festa plazan.
■ **18:00.** Irura eta inguruko herrietako dantzari txikien saioa. Haei merienda emango zaie.
■ **19:30.** Erramun Martikorena eta Mikel Markezzen emanaldia.

URRIAK 2, OSTIRALA

■ **19:00.** Kalejira buruhandi eta erraldoiekin eta Loatzo musika eskolako txistulari taldearekin. Ondoren txistor-jatea izango da Xare elkartearen.
■ **22:30.** Play Back jaialdia plazan edo frontoian (25. urteurrena).
■ **12:30.** La banda del Jefe Bigun taldearen rock and roll emanaldia.

URRIAK 3, LARUNBATA

■ **11:00.** Haur parkea Garbilekuko plazan.
■ **13:30.** Ezkonduen soka dantza plazan.
■ **14:30.** Bikoteen bazkaria Zaharren Biltokian.
■ **15:30.** Haur parkea Garbilekuko plazan.
■ **18:30.** Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoan *Taulara* obra.

■ **19:30.** Udaberri dantza taldearen emanaldia plazan.

■ **22:30.** Kale animazioa Les Diables de Canovilles taldearekin.
■ **00:00.** Herensugea erretzea.
■ **00:30.** Dantzaldia Trikizio taldearekin.
■ **06:30.** Txokolate beroa bizko txoekin.

URRIAK 11, IGANDEA

■ **12:00.** Meza nagusia.
■ **14:00.** Jubilatuen bazkaria, sariak banatzea eta dantzaldia.

ALDABA

IRAILAK 26, BIHAR

■ **19:30.** Patata tortilla lehiaketa.
■ **21:00.** Zagiardo pilotalekuan Hernaniko Bertso Eskolako bertsolearekin.
■ **23:30.** Erromeria Ansoregi, Larrañaiga eta Lutxordiorekin.

IRAILAK 27, ETZI

■ **11:00.** Meza nagusia.
■ **12:00.** II. Aldabako Txirindulari Igoera Herrikoia.
■ **14:30.** Herri bazkaria.
■ **18:00.** Herri kirolak. Aizkolariak: Ollasagasti eta Larretxea. Lasto altxaketa lehia. Jarraian erromeria Ostolaza eta Andonegi trinkitulariekin.

IRAILAK 29, ASTEARTEA

■ **11:00.** Meza nagusia.
■ **12:00.** Hamaiketako herritarrentzat.
■ **17:30.** Idoia Sanchez ipuin kontalaria.
■ **18:30.** Karta txapelketa.
■ **20:30.** Afari herrikoia.

Laburak

Afrikar dantza ikastaroa antolatu dute Asvinenean

ADUNA • Aurten ere afrikar dantza ikastaroa antolatu dute Asvinenean. Urriaren 7an hasiko da eta asteazkenetan 19:30etik 21:00etara izango da, zuzeneko perkusioarekin. Lehen hiruhilabetearen kuota 135 eurokoa da. Lehenengo taldea osatua dago eta beste talde bat ateratu nahi dute. Interesatuak deitu 653 73 27 09 zenbakira edo ainhoaggi@gmail.com helbidera idatzi.

30 lagunek bizikleta txekatu ahal izan dute

ADUNA • Azken egun hauetan egingen ari diren Mugikortasun Iraunkorraren Astearen baitan, atzo Adunan bizikleten txekoa egin zuten, norberak bere bizikleta zein egoeran duen ezagutu eta aldi berean bizikleta ahalik eta hobekien mantentzeko helburuarekin. Herriko plazara 30 bat lagun joan ziren beraien bizikletarekin eta berant egin ahal izan zuten txekoa.



Plazan haur batzuk atzo beraien bizikleta txeketuz. HITZA

Lodosara bidaia egingo dute Alkartasunakoek

ANOETA • Lodosara bidaia egingo dute Alkartasuna biltokioek urriaren 7an. 08:30ean abiatuko dira Anoetako plazatik. Pikillo piperren enpresa bat, bi upategi eta Zagra herriko azoka bisitatuko dituzte. Bazkaria Hostal Venecian egingo dute. Bazkideek 24 euro ordaindu behar dituzte eta ez direnek 27 euro. Izena emateko, biltokian, 18:00etatik 20:00etara.



Sartu euskararen Xarean,

Irurako Udalak herritar guztiei eta kanpotik etorriko zaretenei jai zoriontsuak opa dizkizue.



Tel.: 943 69 13 33 — Faxa.: 943 69 33 41

Taberna - Jateketa
Zaharren Biltokia
Jai zoriontsuak igaro!
Tel.: 943 69 26 32 • Mikel Deuna Plaza, 8 • IRURA

- Aste osoan eguneko menua
- Zure aurrekontura egokitzen gara
- Menu bereziak

Joxean

- inst. industrialak
- iturgintza
- aire egokitua
- berokuntza
- eguzki plakak
- gasa

Jai zoriontsuak opa dizkizue irurar guztiei
Kale Nagusia, 30 • 20271 IRURA • Tel/faxa: 943693352 • mug.:656416808



Artubi Elkarteak Zaldi Raid ikastaroa antolatut zueneko irudia. NEREA URRIBIZU

Zaldia eta natura maite duten guztiak gonbidatuta daude

Bedaio » 15 kilometroko ibilbidean bi itzuli egingo dituzte zaldunek. Tartean albaiariaren kontrola igaro beharko dute.

ERREDAKZIOA

Bedaio II. Zaldi Raid lasterketa etzi egingo dute. Ibilbidea larunbatean markatuko dute eta zaldun, zaldizale eta natura maite duten guztiei bertaratzeko gonbita luzatzen diete Artubi Elkartetik.

Parte hartzeko aukera zabalik

Dagoeneko 15 zaldunek eman dute izena Bedaio Zaldi raid lasterketan parte hartzeko. Jon Azpiroz da antolatzaileetako bat; «larunbat eguerdia bitarte irekita mantenduko dugu izena emateko aukera», azaldu du inor gehiagok parte hartu nahiko balu lasterketa honetan. Horretarako, egunean bertan 10 euro ordaindu beharko ditu zaldun bakoitzak.

Bertan parte hartzeko, «ez dugu adin mugarik jarri, parte hartu nahi duenak ez du federatuta egon behar, zaldun karnetik ere ez dugu eskatzen. Zaldiaren kartila bakarrik aurkeztu beharko dute», azpimarratu du Azpirozek. Ibilbide guztia, baso, bidezidor eta parke naturaletik barrena izango da. Bedaioaren kasuan, zaldiek ia ez dute asfaltorik zapaldu ere egiten ibilbideak dituen 15 kilometrotan.

09:00etatik 10:00etara

Zaldunek goizeko 08:00etarako inguratu beharko dute Bedaioira eta albaiariarenetik pasa beharko dute. Bedaio Raid Lasterketaren berezitasuna, zaldun guztiak ez dira batera aterako da. 09:00etatik 10:00ak bitartean, zaldiak prestatu ahal iritetzen joango dira. Gero ibilbidea, banaka edota lagunartean egiteko aukera izango dute.

15 kilometroko ibilbidea prestatu dute antolatzaileek eta bi buelta eman beharko dizkiete zirkuituari, guztira 30 kilometro eginez.

Buelta bat eman eta gero, albaiariaren kontrolatik pasa beharko du zaldun bakoitzak. Kontrola arazorik gabe pasaz gero bigarren itzulia egitera pasako dira. «Beste raid-en kasuan, kontrola pasatzen ez badute deskalifikatu egiten dira zaldunak. Gure kasuan, ez ditugu baztertuko baina albatariak 30 minutuko atsedeenaren ostean, zaldiaren egoera aztertutako du eta jarraitzeko moduan dagoen ikusiko du pultsazioak, errena, hidratazioa... begiraturaz. Posible da zaldia jarraitzeko moduan ez egotea baina azkenean, zaldunak erabakiko du zer egiten duen», azaltzen du Jon Azpirozek.

II. Zaldi Raid lasterketa antolatzeko beharrezkoak izan dituzte laguntzaile ezberdinak eta lasterketa bukatzean, hauek eman dituzten produktu ezberdinak banatuko dituzte zaldunen artean; «Denentzat izango da zerbait», gaineratzen du, «beraiei esker, bigarren urtez jarraian antolatuta ahal izan baitugu».



Etxandiren oroitaldian txapelak

ALEGIA » Aurten XXXIV. Josetxo Etxandi Oroitaldia jokatu dute Lezon. Bertan parte hartu du Ugaitz Renobales alegiarrak Jon Bengoetxea eibararra lagun duela. Astelehenean jokatu zuten finala Lezon, Idote eta Landiribarren aurka eta 22-20 irabazi zuten. PATXI RENOBALDES

Laburrak

Txintxarri Txikiren lehen entseguak gaur izango da

ALEGIA » Alegiako Txintxarri Txiki abesbatzak, Idoia Iraolaren zuzendaritzapean, gaur emango dio hasiera ikasturteari. Kultur Etxean arratsaldeko 19:00etatik aurrera 7 eta 15 urte bitarteko 25 gazte elkartuko dira. Urtero bezala, astean behin elkartuko dira. Oraindik ere ahots berrien bila dabilza proiektu berrietarako.

15 eta 17 urte azpikoekin Gipuzkoako Txapelketa

VILLABONA » Larunbatean Villabonako Olaederra Kiroldegian Gipuzkoako 15 eta 17 urte azpikoekin halterofilia txapelketa ospatuko da. Goizeko 11:00etan hasiko da eta bertan Danena Halterofilia taldeko pultsulariek parte hartuko dute.

Herri afarirako txartelak erosteko azken egunak

UGARTE » Urriaren 2tik 4ra Ugarten festak ospatuko dituzte. Festei hasiera, herri afariarekin emango diete eta txartela erosteko azken eguna hilaren 27a izango da. Txartelak, Goikoetxea tabernan daude salgai eta 25 euroren truke, urdaiazpikoa, mondeju zopak eta mondejua, ardi gixtua, gazta eta menbriloa eta kafea izango da.

Tolosako arraunlariak Kataluniara doaz

TOLOSA » Tolosako arraunlariak, urriaren 3 eta 4an, Kataluniako Sant Carles de la Rapitako Llaut ontziatoko Espainiako Txapelketa-ira joango dira Colera herriak gonbidatuta. Mutilen taldeko senior eta beteranoak, Euskal Herriko ordezkari bakarrak izango dira.

DESACRISTAL

Autoarentzako kristalgintza **Baimendutako**
Muntaia, salmenta eta konponketak **laminen instalazioa**
Autoa, furgoneta, kamioia nahiz autobusa **SOLAR-CHECK**

Ibaiondo bailara, 17 - 8. pabilioia - N-1 errepidea - IRURA
Tel.: 943 69 16 16 • Faxa: 943 69 12 47



HITZAK harpidedun batentzat **sarrerak** du



LAGUN ARO GBC
Caja Laboral Baskonia
saskibalo partida

Noiz:
Irailak 29, Asteartea • 20:00etan
Non:
Donostiako Arena 2016

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak



Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko hainbat neurri

Ibarra » Bitaka aholkularitza enpresak Mugikortasun Iraunkorraren Plana diseinatu du.

REBEKA CALVO

Gaur egun herri gehienetan izaten dira trafiko arazoak. Geroztik eta auto pribatu gehiago daude eta ondorioz, inoiz baino garrantzitsua da mugikortasun iraunkorraren aldeko apustua egitea. Ibarren ere trafiko arazoak ugariak dira; aparkatzeko arazoak, Euskal Herria kaleko trafiko dentsitate altua, oinezkoentzako espaloiak estu samarrak dira hainbat puntutan, bizikletentzako bide-sare eza...

Azken astea gainera, mugikortasunari eskainitakoa izan da eta data hau baliatu nahi izan du Ibarrrako Udalak orain hilabete batzuk Bitaka enpresari eskatutako Mugikortasun Iraunkorraren Plana aurkezteko. Bitakak hainbat in-

Oinezko gehienak emakumeak dira eta garraio pribatua gizonen erabiltzen dute gehien.

kesta eta ekintza burutu ditu herriko mugikortasunaren inguruko diagnostikoa egiteko eta bertatik ateratako ondorioekin osatu du planaren zirriborroa. Zirriborroa da, hain zuzen, Kultur Etxean asteazken iluntzean aurkeztutakoa eta orain Udalak aztertu behar duena bertan proposaturiko ekintzak abiaraziko dituen ala ez erabakitzeke.

Bitaka aholkularitzako ardura dunek argitutakoaren arabera, proposamenak finkatzerako garaian, lau arlo hartu dituzte kontuan: Ibilgailu pribatuak, oinezkoak zein bizikletak, garraio publikoa eta aparkalekuak.

Ibilgailu pribatuak

Egindako kontaketen arabera, Ibarrek «motorizazio altua» du, izan ere 1.000 biztanleko 516 auto daude. Gipuzkoako batz bestekoa baino 85 auto gehiago. Ibilgailu gehienak, hortaz, %83,7, autoak dira. Ibilgailu pribatuak gizonen erabiltzen dituzte gehienbat, erabiltzaileen profila hauxe delarik: gizonen %71, 40 urtetik beherakoak eta turismoak erabiltzen dituztenak.

Ibilgailu pribatuaren erabilpena murrizteko Bitakak hauxe proposatzen du: «Zirkulazio noranzkoen eta lehentasunen hobekuntza. Gainera, erabiltzaileek kalearen erabilpen orekatu bat izan dezaten, bideen berrantolaketak bat eman beharko litzateke». Trafikoa *igarotzeko kaleetatik* (Euskal Herria kalea kasu) desbideratzeko proposamena ere luzatu diote Udalarri; hartara kutsadura akustikoa mugatuko litzateke, oinezko eta bizikletentzako gune bilakatu litzateke eta trafikoa baretuko litzateke.

Zentzu bakarreko errepideak sortzea ere komenigarria dela uste du Bitakako Ainhoa Ugaldek. «Espazioa hobeto aprobexatu daiteke, bide-segurtasuna handitzen du eta ilegalki aparkatzeko aukerak murrizten ditu», dio.

Biribilgune gehiago egitea ere egokia dela dio Ugaldek, horrela abiadura mugatu daitekeelako, bigarregiaren gatazka-puntuak murrizten direlako, trafiko arina dakarrelako eta mantenu-koste txikiko azpiegitura delako.

Oinezkoak eta bizikletak

Oinezko gehienak emakumezkoak dira Ibarren, %66, 20 urte ingurukoak dira eta gehienak aisialdiarekin lotutako ibilbideak egiten dituzte. Bitakak oinezkoen kopurua handitzeko espaloiak 1,5 eta 2 metro tarteko zabalera edukitzea komeni dela dio eta baita paretan ar-



Bitakako bi kide izan ziren asteazken iluntzean kultur etxean. R. CALVO

tean 7 metro baino gutxiagoko kaleak oinezkoentzako izatea. Era berean, *igarotzeko bideak* ez diren kale guztietan 30 kilometro orduko abiadura izatea gomendatzen dute. Izan ere, oinarriko-sarea ez den hiriguneko bide guztietan 30 kilometro orduko abiadura gunea izatea komeni da.

Emeterio Anrese, San Nazario auzoa, Zaldune eta Beheko Bide kaleetan oinezkoek lehentasuna izateko zoru bakarra ezartzea lehenesten dute, hau da, espaloia eta errepidea altura berean egotea. Euskal Herria eta Apatiaerreka kaleetan espaloiak zabalteza ere gomendatzen dute. Ikastetxe sarbidearen eskaileretan ere, Zaldun-

Aparkaleku defizita dago; 2.589 turismo daude erroldatuta eta 2.119 aparkaleku daude.

ne kalean, espaloiak handitzea komeni da.

Bizikletei dagokionez, oinezkoekiko elkarbizitzeko sustatzea izango litzateke egokiena eta 30 kilometro orduko guneetan, berriz, autoekiko elkarbizitza. Orokorrean, hala ere, bidegorri sarea osatzea da beharrezkoa.

Garraio publikoa

Gaur egun, Tolosaldea Busen bigarren linea bakarrik igarotzen da Ibarrik (Tolosa-Ibarra-Berrobi-Elduain-Berastegi). Erabiltzaile gehienak 38 urte beherako emakumezkoak dira eta Bitakak gertokiak zein ordutegiak hobeto seina-

lezatzeko eskaera luzatu du erabiltzaile kopurua handitu ahal izateko.

Aparkalekuak

Une honetan 2.589 turismo daude erroldatuta Ibarren eta aparkalekuak, aldiz, 2.119 dira, aparkaleku defizita dago, hortaz.

Hau ekiditzeko Bitakako arduradunek epe laburrera burutu dai-

tezkeen hainbat neurri proposatu ditu: Euskal Herria zein Idoiaga kaleetan eta mendebaldeko mugaren artean gune arautua ezartzea (42 plaza), atzerriko erabiltzaileek aparkaleku ordaintzea eta egoiliarre, aldiz, ordutegi disko baten bidez eta doan autoa plaza bakoitzean zenbat denbora edukitzen duten kontrolatzea. Bi orduko muga izango lukete eta horrela plaza bakoitzean egunean bost auto desberdin aparkatu ahal izango lirateke.

Neurri hauei guztiei esker, trafikoa hobeto prestatuta dauden errepideetara bideratuko litzateke, herriguneko trafikoren intentsitatea nabarmenki murriztuz. Kutsadura ere murriztuko litzateke dio Ugaldek, horrela jarraituz gero kutsadura asko handituko da eta. Datu zehatzak ere baditu: «Gaur egun egoiliarrek egunean 73.192 kilometro egiten dituzte garraio bideetan eta ondorioz, 24 kg CO₂ isurtzen dute, etorkizunean 78.339 kilometro egingo litzateke egoiliarrek eta 25 kg CO₂ isuri». Autoetan jende gehiago bilduta (1,36 pertsona joatek 1,46 pertsona joanda), aldiz, 3kg CO₂ gutxiago isuriko litzateke.

Gutunak

Lotsagabekeria eta tasa igoera

Ohituak gauzate Ibarrrako Udal agintariak herrian hartu beharreko erabakiak arinkeriak eta inorekin eztabaidatu gabe hartzera. Dirudienez beraiek herriaren gainetik daude eta egiten dutenaren aurrean ez dizkiote inori kontuak eman behar.

Goizeko 09:00 etan plenoak jarztearekin nahikoa ez, eta gainera erantzinez eta kameraz betetzen dute udaletxea. Ertzaintzaren presentzia gero eta ohikoagoa da plazan, udaletxean plenoa dagoen egunetan, batez ere. Eta zer esan kamerez? Plazan bizi eta dabilen jendea kontrolatu nahi al dute?

Irailak 22ko Udal bilkuran, Maite Aranaldere etorreran Ibarrrako herritarrek bortizki jipoitu zituen erantzaren jokabidea babestu zuten udal agintariak eta era berean beren kezka agertu zuten herrian izandako istiluen aurrean.

Udaleko agintariak bere kontra mozioan onartu dutena hipokresia hutsa da! Edo polizia errepresoaren jarduna salatzen da edo bere ibilbide zapaltzailea onartzen da. Gainontzekoa, denekin ongi geratu nahi izatea da.

Gauzak argitze aldera esan, Maitezi ez zitzaioala inongo omenaldirik egin eta ongi etorri xume bat egin nahi zitzaioala, ez besterik. Eta bere senide eta lagunak aurka oldartu zirela Aresen morroiak.

Beste gehiegikeria bat? Lehengo urtean zaborraren tasa % 20 igoztearekin nahikoa ez eta aurten

beste % 20 igotzea erabaki dute, hau da, 2 urtetan denera %40. Hortaz, 2010. urteko errezipioa 93 euro inguruko izango dela aurreikusten dugu.

Krisiaz hainbeste hitz egiten den honetan, herritarrek ekonomikoki gehiago itozteko bide ederra, benetan.

Aldi berean, udalari hilabetero 7.300 euroko gastua suposatuko dion OTA zerbitzua jartzera doaz. Jakina Ibarren aparkaleku arazoa daukagula! Baina ez al da proposagoa herritarrek hitz egin eta arazoari irtenbide komun bat bilatzen saiatzea? Argi dago Ibarrrako udaletxearen kudeaketa txarriaren ondorioz sortzen diren defizit eta galera guztiak herritarrok ari garela ordaintzen.

Laburki salatu nahi dugu Maite Aranaldere etorreran erantzak izandako jarrera; udal honen hipokresia; Ibarrra ireragingo digun zabor bilketaren taseen igoera; herritarrek kontuan hartu gabe OTA zerbitzua jarzea; norbanakoaren intimitatea bortxatzen duten kamerak presentzia; udalbatzaro plaza eta bere inguruak erantzaz jositako egotea...

Azkenik esan udaletxean ohituta daudela deserosoak diren moziok ez tratatzen edo kontra moziok erantzuten. Horrela erakusten dute beraien izaera ez demokratikoa, beraiek nahi dituzten moziok bakarrik tratatuz eta besteak boikoteatuz.

Mari Jose Ruiz eta Ederne Urdanpilleta. Ibarrrako Udal Hautetsi Independentistak.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Granja.** Granja salgai Berrobin. 1.600 metro koadro. Harremantarako: 652 753 392.

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. 638 944 604 (Gurutze) edo 695 708 271 (Belen).

tolosaldeko hitza. iragarkilaburrak.com

Astearte arratsaldeko 15:00ak arte jasotako iragarkiak soilik argitaratuko dira.
IRAGARKIAK JARTZEKO: www.tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com / 943-655695 Telefono zenbakia

1 Etxebizitza
1.1 SALGAI

Alegia. Alegian, Larraitz auzoan, etxebizitza berriua salgai. Sukalde ederra, bi logela, egongela eta bi bainugela. Prezioa: 174.000 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 669-827096

Alegia. Alegian, San Joan auzoan, etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea eta egongelarekin. Prezioa: 156.000 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 669-827096.

Berriatua. Etxebizitza salgai Berriatua. 72 metro koadro. Bi logela, komuneta eta sukalde-egongela. Berriatua eta gututz jantzia hartzeko aukera. Prezio negoziagarria. Deitu 94-6166419 edo 94-6139056 telefonoetara.

Ondarroa. Etxebizitza salgai Ondarroan, Kamiñazpin, frontoi aurrean. 3 logela, komuneta eta sukalde-jantokia. Prezio negoziagarria. Telefonoa: 667-299081.

Tolosa. Tolosako Gorosabel kalean, bi etxebizitza saltzen dira. Toki oso onean. Bata 180.000 euroan eta bestea berriz 156.000 euroan. Harremanetarako telefono zenbakia: 669-827096

1.2 ERRENTAN EMAN

Donostia. 2009-2010 ikasturterako atikoa ematen da errentan alde zaharrenean. Bikote batentzako proposa. Bi logela, sukalde, egongela eta komuneta. 616-014017

Donostia. Antigua. 2009-2010 ikasturterako etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, sukalde, egongela eta komuneta. 618-015144

Ordizia. Pisu alokatzen da Ordizia erdigunean. Altzariz hornitua, 2 logela, eta igo-gailua. Deitu: 943-889580

Tolosaldea. Villabonan eta Iruran etxebizitzak alokatzen dira. Bat 600 euroan eta bestea 650ean. Harremanetarako telefono zenbakia:

669-827096
Zarautz. Gela bat alokagai Zarautz, Zelai-Ondo kalean. Telefonoak 943-021026 eta 658-730659

1.3 ERRENTAN HARTU

Cetaria. Cetarian etxebizitza bat hartuko nuke errentan. Urte osorako. Ahal bada bi gela dituen.

Lekeitio. Lekeitio urte osorako errentan hartzeko pisu txiki baten bila nabil, 1 edo 2 logela. Telefonoa: 658-701953

Tolosa. Tolosan, bikote gazte batek alokairuko etxea behar du, 400€ inguruko prezioa duena. Idatzi hona eta guk deituko dizugu.

1.4 PISUA KONPARTITU

Donostia. Antigua, emakume eskaldun batek, ikasleentzako gela bat alokatzen du. Astelehenerik ostiralera eta kurtsio garaian bakarrik (wi-fi sarea badu). Interesik baduzu, deitu 649-439817 zenbakira.

Cetaria. Pisuakide bila Cetarian. Interesatuek idatzi aupair@hotmail.com helbidera.

2 Motorra
2.1 SALGAI

Ford Transit Connect Van zuria salgai. Ford Transit Connect Van zuria salgai. 2008koa. Lanerako prestaturia, kristal bako kaxa, bi eserleku, zerbitzu publiko txartela, oso kilometro gutxi. Oso prezio ona. Deitu 10:00etatik 13:00etara edo 16:00etatik 19:00etara. 672-624233

Mercedes Sprinter. Mercedes Sprinter furgoneta-etea salgai. 4 lagunendako. Sukaldea, komuneta, ohe bi, dutxa eta hozkailua. Berria. 40.000 euro. Tel. 656-768944.

Opel Astra. Opel Astra salgai. 56.000 km. 14 urte. 4.000 euro. Telefonoa: 626-933850.

Opel Corsa Joy. 1.400 cc, 16v, 38.500 km eta 4 urte. Oso egoera onean. 7.500 euro. 688-617677

3 Garajeak
3.1 SALGAI

Alegia. San Juan kalean, garajeko marra salgai. Prezioa: 18.000 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 669-827096.

Donostia. Garajea salgai egian (Maria Reina azpian). 16 metro koadro. 45.000 euro. 626-919715. Arratsalde deitu.

4 Lana
4.1 LAN BILA

Azpeitia. 25 urteko neska arduratsua udan umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko prest. Esperientziaduna. Deitu promisorik gabe. 675-711847

Irura. Giza elikadura eta dietetikan diplomatu naiz eta honekin zerikusia duen lanen baten bila nabil. Irati. 697-522048

Tolosa. 49 urteko autonomia naiz. Nik lokala jartzen dut eta zuk ideiak edo lana baduzu harremanetan jarri mesedez.

Tolosaldea. Emakume eskalduna eskaintzen da adinako pertsonak zaintzeko. Interesatuek deitu 665-720426 telefono zenbakira.

Zumaia. 22 urteko neska zumaia irra naiz eta asteburutarako lan bila nabil, zerbitzari moduan. Esperientzia dut: hiru urtez taberna batean lan egin izan dut, udako hilabetetan. Telefonoa: 669-392065.

4.2 LANGILE BILA

Azpeitia. Nekazaritza kooperatiban, baserrietako gestio tekniko ekonomikoa eta aholkularitza egiteko. Abeltzantza ekoizpen eta ekonomian espezializatua. Lan arrisikuen prebentzioan masterra edo goi mailako ikasketak dituen. Curriculuma helbide hauetara bidali: Jose Artetxe, 3 20.730

(Azpeitia) edota gestioa@lurgintza.net. Epea: 2009-09-25

Goierri. Bertako neska bat behar da Beasainen ume bat zaintzeko eta garbituta egiteko. Esperientziaduna. Ondo ordaintzen da. 609-413897

Idiazabal. Idiazabalgo Xapobixi Aisialdi Elkateak, ludotekarako begiralea eta dantza irakaslea behar ditu. Bidali curriculumak helbide honetara: xapobixi@gmail.com

Lazkao. Zerbitzaria behar da Lazkaoen. Beharrezkoa da eskarmentua izatea eguneko menuetan eta barran. Harremanetarako telefono zenbakia: 943-088088. Alberto edo Nerea.

Tolosaldea. Banatzaile gidaria behar du. Tolosaldekoa. Interesatuek deitu: 648-004798.

Tolosaldea. Emakume bat behar da adinako pertsona bat zaintzeko. Interesatuek deitu 679-819042 telefono zenbakira.

5 Irakaskuntza
5.1 EMAN

Beasain. DBHko eta lehen hezkuntzako ikasleei (6 eta 16 urte bitarteko umei), klase partikularak ematen dizkien Psikologiko 4. mailako ikaslea naiz. Klaseak Beasainen edo Ordizian ematen ditut. Harremanetarako: 615-714084

Gernika. Esperientziadun irakasleak talde txikitako klase partikularak eskaintzen ditu Gernikan lehen hezkuntza eta DBHko ikasleentzako. Kontakua: 656-772012 (Nahia)

Tolosa. Neska eskalduna, esperientziaduna eta tituluduna (Enpresa Administrazio eta Zuzendaritza Lizenziatuta, Irakaskuntza Kogitatu Agiria, EGA), banakako klaseak emateko prest. DBH eta Batxilergoko (Giza-Gizarte Zientzietako irakasgaiak) ikasleei. 675-711214.

7 Denetarik

7.1 SALGAI

6 behi eta 18 ardi saltzen dira. Behiak eta ardiak. 6 behi eta 18 ardi saltzen dira. 697-530840

Dendarako altzariak eta osagarriak salgai. Dendarako altzariak eta osagarriak salgai. Manikiak, beira-arasak, metalezko apalategiak, eta mahai osagarriak. 627-961922

Egurra salgai. Moztuta. Su bazu edo txaparako. 617-277464 edo 945-445111

Egurrezko altzaria apalekin salgai. Egurrezko altzaria apalekin salgai. Prezio interesgarria. 639-944865

Fox Terrier txakurkumeak salgai. Abuztuaren 15ean jaiotakoak. Arra eta emea, butznak moztuta eta parasitorik gabe. Telefonoa: 635-741655.

Gasarentzat berogailua. Junkers markako berogailua gasarentzat. Bi urte ditu eta ez dago akota erabilia. Telefonoa: 943-021026 eta 658-730659.

Giant bizikleta.

Erreperidero bizikleta salgai. 56 neurrikoa. Gurtzi erabilia. 4.000 km. 600 euro. 656-753586

Gurpildun aulki motorduna salgai. Erabili gabea. Prezio negoziagarria. 618-627943 edo 943-796572

Haurrendako kapazo

BASULA astebukaera (2 gau) Landa etxea 270 euro
Muneta (Nafarroa) • tel: 606-041689
www.basula.com

Ikolananaldi
IGELTSERO eta ENKOFRADOREAK
Goierriin kokatutako enpresa baterako. Kontratatutako esperientzia derrigorrezkoa da.
Ikusi lan eskaintzak: **943-16 20 48**
www.ikolananaldi.com

etasilla. Bebe-car kapazoa eta silla salgai. Telefonoa: 716-801304.

Hozkailu industriala. 2,05 altuera, 1,40 zabalera eta 0,70eko sakonera. Hiru ateduna. 649-846709

Kawasaki Z750 salgai. Kawasaki Z750 Salgai 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000 km. Azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. Harremanetan jartzeko deitu: 660-337716.

Kioskoa salgai Altsasun. Krisiari aurre egiteko aukera. Interesatuek 638-275700 telefonora deitu.

Konpresore handia. Konpresore handia salgai. Arabakom markakoa. Erabili gabe. 200 euro. Telefonoa: 606-949658.

Korrika egiteko zinta. BH Argon markakoa. Gehieneko abiadura 18 km/orduko. Gehieneko pendetza %15. 550 euro. Deitu 635-698263 telefonora.

Liburu oso zaharrak saltzen ditut. Eleberriak, ipuinak... 696-841951 edo 943-532918

Mendiko bizikleta. Mondraker Factor R salgai, suspentsio bikoitz eta blokeo-arekin. 1.400 euro. 655-744855 edo 943-782490

Nokia 6124.

Nokia 6124 telefonoa salgai. Vodafone etxekoa. 50 euro. 617-131751

Oilagoretarako txartel bi salgai Burgozen. 3.900 hektarea, haritz eta pinuz, Pinilla de los Barruocos eta Cete herrietan (Salas de los Infantestik 8 kilometroa). Gehieneko 11 eskopeta. Txartel bakoitzak 1.200 euro. 696-921829 edo 665-701031

Piragua bi salgai. Piragua bi salgai, osagarriekin, bata mistoa eta bestea erreka edo olatuetarako aproposa. 679-109523

Txakurramateko kaja. Txakurrak kotxean eramateko kaja salgai. Estreina-tu barik. Bi txakurrendako modukoa. 639-372299 edo 659-770333

Txakurrak salgai. Setter ingeles arrazoko txakurkumeak salgai. Bi ar. Hiru koloretakoak. Ehizarako aproposak. Uztalaren 23an jaiotak. 649-846709

7.5 HARTU

9 4 3 - 4 4 6 1 6 6

Alokairuan
ANTIGUO Logela, egongela, sukaldea, bainugela, terraza handia, 750€
AMARA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 850€
MARTUTENE 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, Igogailua, 750€
ALTA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 750€
LEZO Duplexa, 2 logela, 2 egongela, sukaldea, 2 bainugela, 780€
GROS 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, Igogailua, 1100€
GROS Ibaia erztean, 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 1.000€
IKASLENTZAKO ALOKAIURIAK
AMARA 2 logela, Terraza handia, Gastuak Bame, 700€
AMARA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 800€
SALMENTAN
MARTUTENE Balkoia, 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, Berria, 34.300,000
INTXAUERONDO 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, Kanpora begira, Polita, 36.900,000
AMARA Apartamentu polita, Logela, egongela, sukaldea, bainugela, Argitsua, 39.900,000
AMARA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, Terraza, Altua, 43.500,000
AMARA Hasieran, 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 45.500,000
AMARA Hasieran 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, Berria, 48.800,000
AMARA OSINAGA Apartamentu berria, Altua, Garajea, 53.800,000
LOIOLA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, Igogailua, Oso polita, 39.500,000
LOIOLA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, Igogailua, 24.900,000
GROS Apartamentu polita, Logela-egongela, sukaldea, bainugela, 38.500,000
GROS Hondartzan, Logela, egongela-sukaldea, bainugela, Igogailua, 36.950,000
EGIA 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, Terraza, Igogailua, 45.500,000
PASAI ANTZO 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela, Kanpora, 25.950,000
PASAI DONIBANE 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, Balkoia, Bistak, 33.400,000
www.etxebizitza.iragarkilaburrak.com
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

630-32 74 66 / 630-39 23 14
p.elektronikoa: info@legazpipaintball.com
Lakiola behekoa baserria Hegialde auzoa 18
Uztartza auzotik Lakiolako igoeran

LEGAZPI PAINTBALL



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: S5-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tososaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tososaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tososaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tososaldeko hitza.info.
Anoetaldia: 687 410 022. anoetaldia@tososaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tososaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tososaldeko hitza.info.
Leitzaldeia: 687 410 118. leitzaldeia@tososaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Alegia.** Jubilatuko elkarrekin hilaren 23rako Arabara antolatuta du irteera, Laudio, Artziniaga, Amurrio eta Gasteiz bisitatuz. Izen-ematea, elkartean 16tik aurrera 11:00etatik 12:00etara 30 eurotan.
- **Bedaio.** Hilaren 27an II. Raid Las-terketa antolatuta dute Bedaio, 25 kilometroko ibilbidea 09:00etan abiatuta. Izen-ematea, 24rako elkartean (www.bedaio.com).
- **Zizurkil.** Hilaren 27an zaldi lasterketa egingo dute, 18:00etan. Bertan 15 zaldunek hartuko dute parte.
- **Tolosa.** Bisita gidatuak Topic-en (Euskal Herria plaza) urriaren 3ko eta 10eko asteburuetan, 12:00etatik 18:00etara. Izen-ematea, TEEn (Tolosako Ekinbide Etxea), 943 65 04 14 (09:00-13:00 eta 16:00-19:00) edota topic@cittolosa.com.
- **Tolosa.** Mugikortasun Astea: ostiralean 17:00etik 20:00etara txapa tailerra Triangulon, bi egunetan mugikortasun iraukorra-reen erakusketa eta zirkuitoak Triangulon, ostiralean 19:00etan eta larunbatean 12:00etan Car Sharing elkartearen stand-ean hitzaldia, larunbatean Stop CO2 Euskadi atera kontuak jolasa.

Antzerkia

- **Berastegi.** Umorezko bakarrik-eta 22:00etan Urepele elkartean, Txirene taldearen *Ogiyik karri etzun semia*.

Erakusketa

- **Tolosa.** Iñigo Altolagirrearen pin-tura erakusketa Aranburu jaure-gian.

Jaiak

- **Ibarra.** Bizi-Nahi jubilatuko elkar-tearen festa: 09:30ean ibilaldi neur-tua, amaieran hamaiketakoa, 20:00etan afaria elkartean eta afalostean dantzaldia.
- **Irura.** 19:00etan txupinazoa eta herensugearen jaitsiera, buruhan-di eta erraldoiak BKT perkusio tal-dea eta Iruñako gaiteroekin, 21:00etan barrikotea plazan eta 24:00etan Joselu Anaiak musika taldearen saioa.



» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.

HITZAK bildu ditu irakurleek bidalitako oporraldiko argazki guztiak; etzi, igandean, argitaratuko ditu zortzi finalistak; zorte on guztio! Sari interesgarriak zain dituzue.

Azkenak ere heldu dira



ISLANDIA • Iparraldean dagoen Hvitserkur arkoaren argazki bat da; ikusten duzun bezala arkaitzak oso forma berezia du, eta gainera eguzkiaren eraginez oso kolore bereziak hartzen ditu. **ANDONI LEUNDA (VILLABONA)**. **BAXE-NAFARROA** • Txorikumeak, amak janaria dakarkien momentu berean. **HAIZEA UURKO**. **ANTELOPE CANYON** • Kolorado ibaiatik gertu. Haizea eta urak zulatutako kanoi honetan arkaitza, argitasuna eta hondarra nahasten dira... **IBON AZPILIKUETA (ALEGIA)**. **TXINA** • Saltzaille-erosle baten irudia azokan. **FERNANDO ROJO (TOLOSA)**. **KOSTARIKA** • Tortugero parke nazionalako egunsentia, itsasoaren soinua gozoa, txorien txioa, tximinoen orruak... **AITZIBERRAZKIN (TOLOSA)**. **ISLANDIA** • Gulfforso-eko urjauzia. **MAIDER ELORTZA (TOLOSA)**. **DONOSTIA** • Pasealeku berrian ilunabar zoragarria... **ORKATZ GOENAGA (TOLOSA)**.